



KARGUA UTZI ONDOREN JASOTAKO KALTE-ORDAINAK, HALAKORIK JASO BADA

Idatzi honek, goi karguei, kargua utzi ondoren dagozkien kalte-ordainei buruzko informazioa eta bitarteko pausuak erakutsi nahi ditu:

- 2013ko uztaila arte, indarrean zegoen araudia:

Uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauak, bere III. Tituluko VI. Kapituluko 50, 51, 53 eta 53. artikuluetan Foru Aldundiko kideen eta goi-kargudunen pentsioak eta kargugabetzeagatiko prestazioak arautzen zituen.

- 2013ko uztailan indarrean sartutako arau berria, ordurarte indarrean zegoen arauaren gainean aldaketak egin zituena, kalte-ordainak ezabatuz:

2013ko uztailaren 3ko 3/2013 Foru Araua, aldatzen duena Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua. Foru arau honek ezabatu egiten du III. Tituluko VI. Kapituluko osoa: Kasu batean, egungo arau esparruan, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrak erantzun nahikoa ematen diolako; eta besteetan, berriz, gizartearen eta herritarren ikusmoldea hartuta, ezin delako zuritu ezta ulertu ere arauketa espezifikoa izatea.

- Langabezi egoeran geldituz gero, eta 2013ko araua indarrean sartu arte kotizatu ez izanagatik egokituko litzaiekeena:

2013ko uztailaren 3ko 3/2013 Foru Arauaren xedapen iragankorrak ondorengoia dio:

Kargugabetu ondoren langabezi egoeran gelditzen diren Aldundiko gaur egungo kide eta goi-kargudunek, foru arau hau indarrean sartu arte horiengatik ez bada Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean kotizatu langabezia-kontingentzia dela-eta, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 50.2 artikuluan aurreikusten zen eta foru arau honek ezabatu duen aldi baterako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea zutelako, honako zenbateko hau jasoko dute, Gizarte Segurantzako araudiari jarraikiz dagokien langabezia- prestazioa jasotzeari uzten diotenean eta langabeziako legezko egoeran jarraitzen badute eta egoera horretan jarraitzen duten bitartean: kargua bete izan duten denbora-aldi osoan kontingentzia horrengatik kotizatu izan balitz jasotzea egokituko litzaiekeenaren adinakoa. Ondorio horietarako, kargugabetze egunean indarrean dagoen Gizarte Segurantzako araudia hartuko da erreferentzia gisa.

Laburbilduz, gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundian lan egiten duten Goi Karguek beraien kargua utzi ondoren ez dute Aldundiaren eskutik inolako kalte-ordainik jasoko.



INDEMNIZACIONES PERCIBIDAS, EN SU CASO, CON OCASIÓN DEL ABANDONO DEL CARGO

Este escrito quiere mostrar la información y pasos intermedios sobre las indemnizaciones que corresponden a los altos cargos, una vez cesan de sus cargos,

- o La norma que estaba en vigor hasta julio de 2013:

El Capítulo VI del Título III de la **Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa**, en sus artículos 50, 51, 52 y 53 regulaba las prestaciones por cese y pensiones de las y los miembros de la Diputación Foral y de las y los altos cargos.

- o La nueva norma que entró en vigor en julio de 2013, por la que se modificaba la norma en vigor hasta entonces, eliminando las indemnizaciones:

NORMA FORAL 3/2013, de 3 de julio, por la que se modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Mediante la presente norma foral, se suprime íntegramente el Capítulo VI del Título III, bien porque el actual marco jurídico conformado por el Régimen General de la Seguridad Social ofrece ya respuesta suficiente; bien porque desde la percepción de la sociedad y la ciudadanía, no se comprende ni se justifica el mantenimiento de una regulación específica.

- o En caso de encontrarse desempleado, y por no haber cotizado hasta la entrada en vigor de la norma de 2013, lo que les correspondería:

La NORMA FORAL 3/2013, de 3 de julio, en su disposición transitoria indica:

Las y los actuales miembros y altos cargos de la Diputación Foral que, tras su cese, se encuentren en situación de desempleo, y respecto de quienes hasta la fecha de entrada en vigor de la presente norma foral no se hubiera cotizado por la contingencia de desempleo del Régimen General de la Seguridad Social por haber tenido derecho a la prestación económica temporal prevista en el artículo 50.2 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, que se suprime en virtud de la presente norma foral, percibirán, una vez que dejen de cobrar la prestación por desempleo que les corresponda de acuerdo con la normativa de la Seguridad Social, si persiste la situación legal de desempleo y en tanto en cuanto ésta se mantenga, una cantidad equivalente a la que les hubiera correspondido percibir de haberse cotizado durante el período completo del ejercicio del cargo por tal contingencia. A estos efectos, se tomará como referencia la normativa de Seguridad Social vigente en la fecha del cese.

Resumiendo, actualmente, los altos cargos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, una vez cesados del cargo, no reciben ninguna prestación.